

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 615/2018 Foru Agindua, urriaren 24koa. Onartzea 280 eredia, epe luzerako aurrezki planen urteko aitorten informatiboari buruzkoa**

Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, epe luzerako aurrezki planak egiteko erabiltzen diren bizi aseguruetatik, gordailuetatik eta finantza kontratuetatik datozen higigarrien kapitalaren etekin positiboen salbuespena ezartzen du 2018tik aurrerako eraginarekin, zenbait baldintza beteta.

Foru Agindu honek onartzen du 280. eredia, epe luzerako aurrezki planen urteko aitorten informatiboari buruzkoa.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak honetaz egindako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

#### XEDATZEN DUT

##### **1. artikulua. Onartzea 280 eredia**

Onartzea 280 eredia, epe luzerako aurrezki planen urteko aitorten informatiboari buruzkoa, Foru Agindu honen I. eranskinean dagoena.

##### **2. artikulua. 280 ereduaren diseinu fisikoak eta logikoak onartzea**

280 ereduak eduki beharreko diseinu fisiko eta logikoen euskarriak onartzen dira, foru agindu honen II. eranskinean daudenak.

##### **3. artikulua. 280 eredia aurkeztu behar dutenak**

280 eredia aurkeztu beharko dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren hogeita hamabigarren xedapen gehigarrian zehaztutako epe luzerako aurrezki planak merkaturatzen dituzten aseguru edo kreditu erakundeek.

##### **4. artikulua. Informazioaren gaia**

280 eredian aitortuko den informazioa indarrean dagoen legeriaren arabera izango da, eta Agindu honen II. eranskinean jasotako diseinuen arabera izango da.

##### **5. artikulua. 280 eredia aurkezteko moduak**

280 eredia nahitaez baliabide elektronikoen bidez aurkeztu beharko da, egoitza elektronikoa edo Editran erabilita, Foru Agindu honen II. eranskinean dauden diseinu fisiko eta logikoei jarraituz.

##### **6. artikulua. 280 ereduko aitortenak Internet bidez aurkezteko baldintza orokorrak**

Baldintza hauek bete behar dira 280 eredia Internet bidez aurkezteko:

Bat. Aitortzaileak identifikazio fiskaleko zenbakia (IFK) eduki behar du.

Bi. Eredua telematikoki aurkezteko prozedura Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren otsailaren 3ko 39/2010 Foru Aginduak 3. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da (agindu horren bidez, zergapeko batzuek eredu jakin batzuk Internet bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dira).

Hiru. 280 ereduko aitortpena modu telematikoan aurkezteko, lehenbizi aitortzaileak fitxategi bat sortu behar du; fitxategiaren edukia bat etorri behar da foru agindu honen II. eranskinean ezartzen diren diseinu fisikoekin eta logikoekin (1 eta 2 motak).

#### **7. artikulua. 280 eredua aurkezteko epea**

280 eredua hurrengo urteko urtarrileko lehen 30 egun naturaletan aurkeztu beharko da, aurreko urteko informazioari dagokionez.

#### **XEDAPEN OSAGARRIAK**

Lehenengoa. Epe luzerako aurrezki planen inguruan 196. ereduan eman beharreko informazioa.

Epe luzerako aurrezki kontu indibidual (CIALP) batean integratutako gordailu eta finantza kontratuen bidez gauzatzen diren epe luzerako aurrezki planetatik eratorritako salbuetsitako etekinak eta horrek iraun bitartean lortutako kapital higigarriaren etekin negatiboak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 9. artikulua-ren 37. zenbakian zehazten direnak, epe luzerako aurrezki planen urteko aitortpen informatiboari buruzko 280 ereduan emango dira, eta ez dira 196. ereduaren "diruzko hartukizunen" eremuan aitortu beharko.

Hala ere, aipatutako epe luzerako aurrezki planak egiteko erabiltzen den kontuari dagokion gainerako informazioa, 196 ereduak eskatzen duena, aitortu beharko da; halaber, eredu horretan aitortu beharko dira kapital higigarrien etekin positiboa, eta planean sartutako kopuruek sortutako atxikipenak, ireki zenetik 5 urte igaro baino lehen edo ekarpenen muga ez betetzeagatik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren 1 apartatuko c) letran ezarritakoaren arabera.

Bigarrena. Aldatzea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren otsailaren 3ko 39/2010 Foru Agindua, baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituen zergapeko eta eredu jakin batzuk Internet bidez modu telematikoan aurkezteko.

Zergapeko eta eredu jakin batzuk Internet bidez modu telematikoan aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituen Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren otsailaren 3ko 39/2010 Foru Aginduaren 1. artikulua-ren Bat apartatuko urteko laburpenei eta aitortpen informatiboari buruzko atala aldatzea, eta eredu hau gehitzea:

"280 eredua (epe luzerako aurrezki planen buruzko urteko aitortpen informatiboa)."

#### **AZKEN XEDAPENA**

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta, lehenengo aldiz, 2019an aurkeztuko da, 2018ko ekitaldiari dagokion informazio aitortpena aurkezteko.

Gasteiz, 2018ko urriaren 24a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*  
**JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ**

*Ogasun zuzendaria*  
**TERESA VIGURI MARTÍNEZ**

## ERANSKINA

**DISEINU FISIKOAK ETA LOGIKOAK, 280 EREDUA  
ORDENAGAILUZ ZUZENEAN IRAKURTZEKO MODUKO  
EUSKARRIAN AURKEZTEKO****ERREGISTROEN DESKRIBAPENA**

Aitortzaile bakoitzeko bi erregistro mota izango dira. Erregistro horiek lehenengo posizioak bereizten ditu, irizpide hauei jarraituz:

**1 mota:** Aitortzailearen IFZ: Aitorpenaren identifikazio datuak eta laburpena.

Agindu honen paragrafo hauetan eta eranskinean geroago agertuko diren erregistro motetatik 1 erregistro motaren diseinua.

**2. mota:** Aitortuaren erregistroa. Atal hauetan beherago eta foru agindu honen eranskinean jasotako 2 erregistro motaren diseinua.

Aurkezteko hurrenkera erregistro motaren arabera izango da. 1 motako erregistro bakarra egongo da, eta epe luzerako aurrezki plan baten zenbat titular dauden, 2 motako hainbat erregistro.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrotatuko dira eta eskuinean zuriuneak utzi; letra larriz idatziko dira eta ezin da erabili ez karaktere berezirik ez azentu markadun bokalik. Eremuaren deskribapenean besterik adierazi ezean.

Hizkuntzaren karaktere berezietarako ISO-8859-1 kodifikazioa erabiliko da. Horrela, "Ñ" letrak ASCII 209 (Hex. D1) balioa izango du eta Ç letrak (ze gakodun larria) ASCII 199 (Hex. C7) balioa.

Eremu numeriko guztiak eskuinean lerrotaturik eta ezkerrean zuzen aurkeztuko dira, zeinurik gabe eta paketatu gabe.

Eremu guztiak izan behar dute edukia, eremuaren deskribapenean besterik adierazi ezean. Edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfabetikoak eta alfanumerikoak zuriunez beteko dira.

**A.- 1 MOTAKO ERREGISTROA: AITORTZAILEAREN IFZ.**

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIBAPENA
1	Numerikoa	<b>ERREGISTRO MOTA</b> Finkoa: '1'
2-4	Numerikoa	<b>AITORPEN EREDUA</b> Finkoa: '280'
5-8	Numerikoa	<b>EKITALDIA</b> Aitorpenaren zerga ekitaldiaren lau zifrak.
9-17	Alfanumerikoa	<b>AITORTZAILEAREN IFZ</b> Aitortzailearen IFZ adierazi behar da uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuak, IFZren inguruko betebeharrak arautzen dituenak, ezarritako erregelei jarraituz (ALHAO, 88. zk.a, 2008ko abuztuaren 4koa). Eremu hau eskuinean lerrokatu behar da. Azken posizioan kontrol karakterea jarri behar da eta ezkerrekoak zeroz bete.
18-57	Alfanumerikoa	<b>AITORTZAILEAREN IZENA</b> Erakundearen izen osoa idatzi behar da, anagramarik gabe. Eremu horretan ezin da inolaz ere idatzi merkataritza izenik.
58	Alfabetikoa.	<b>EUSKARRI MOTA</b> 'T': telematikoki aurkezten bada.
59-107	Alfanumerikoa	<b>HARREMANETARAKO PERTSONA</b> Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da: 59-67 <b>TELEFONOA</b> : 9 posizioko eremu numerikoa. 68-107 <b>ABIZENAK ETA IZENA</b> : Lehenengo abizena, zuriune bat, bigarren abizena, beste zuriune bat eta izen osoa, hurrenkera horrexetan ezinbestean.
108-120	Numerikoa	<b>AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA</b> Aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da. Identifikazio zenbakia zenbaki sekuentziala izango da; lehenengo hiru digituak 280 izango dira (ereduaren kodea).
121-122	Alfabetikoa.	<b>AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA</b> Bigarren aitorpena edo ondoko besteren bat aurkeztuz gero, eremu hauetako bat bete behar da nahitaez: 121 <b>AITORPEN OSAGARRIA</b> Aitorpen berriaren xedea lehenago aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean agertu behar izan arren bertan oso-osorik jarri gabe geratu ziren aitortu batzuen erregistroak eranstea bada, "C" idatzi behar da. 122 <b>ORDEZKO AITORPENA</b> Aitorpenaren xedea ekitaldi bereko aurreko beste aitorpen bat, okerreko datuak eduki dituena, osorik deuseztatzea eta ordeztzea bada, "S" idatzi behar da. Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bakar bat baino ezin du baliogabetu.

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIBAPENA
123-135	Numerikoa	<b>AURREKO AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA</b> “AITORPEN OSAGARRIA” eremuan “C” jarri bada edo “S” “ORDEZKO AITORPENA” eremuan, ordeztutako edo osatutako aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da. Beste edozein kasutan, zeroz bete beharko da.
136-144	Numerikoa	<b>AITORTUEN GUZTIRAKO KOPURUA</b> Aitortuen erregistroen (2 motako erregistroak) guztirako kopurua adierazi behar da.
145-164	Numerikoa	<b>EKARPENEN GUZTIRAKO ZENBATEKOA</b> “EKITALDIAN EGINDAKO EKARPENAK” eremuan (2 motako erregistroko 111-116 posizioak) jasotako zenbateko guztien batura jarriko da. Zenbatekoak euroetan eman behar dira. Balioak ez du zeinurik izango (+/-), ez eta koma hamartarrik ere. Eremu hau bitan banatzen da: 145-162 Numerikoa: Zati osoa. Ekarpene guztien baturaren zati osoa jarri behar da (ez baldin badu, zeroak jarri). 163-164 Numerikoa: Zati hamartarra. Ekarpene guztien baturaren zati hamartarra jarri behar da (ez baldin badu, zeroak jarri).
165-184	Numerikoa	<b>ATXIKIPENEN OINARRIA.</b> 2 motako erregistroko “EGINDAKO ATXIKIPENAREN OINARRIA” eremuan (2 motako erregistroko 166-175 posizioak) sartutako zenbatekoen batura jarriko da. Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira. Balioak ez du zeinurik izango (+/-), ez eta koma hamartarrik ere. Eremu hau bitan banatzen da: 165-182 Numerikoa: Zati osoa. Atxikipene guztien baturaren zati osoa jarri behar da (ez baldin badu, zeroak jarri). 183-184 Numerikoa: Zati hamartarra. Atxikipene guztien baturaren zati hamartarra jarri behar da (ez baldin badu, zeroak jarri).
185-487	-----	<b>ZURIUNEAK</b>
488-500	Alfanumerikoa	<b>ZIGILU ELEKTRONIKOA</b> Eremu hori zigilu elektronikoa jartzeko da. AFaren programa ofizialek bakarrik jarriko dute. Beste edozein kasutan, zuriunez bete behar da.

- \* Zenbateko guztiak positiboak izango dira.
- \* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete beharko dira.
- \* Edukirik ez duten eremu alfanumerikoak eta alfabetikoak zuriunez bete beharko dira.
- \* Eremu numeriko guztiak eskuinera lerrotatu behar dira eta ezkerrean zeroz bete behar dira.
- \* Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerrean lerrotatu eta eskuinaldean zuriunez bete behar dira, letra larriz idatzita, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan kontraktorik azaldu ezean.

**B.- 2 MOTAKO ERREGISTROA: AITORTUAREN ERREGISTROA**

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN DESKRIBAPENA
1	Numerikoa	<b>ERREGISTRO MOTA</b> Finkoa: '2'
2-4	Numerikoa	<b>AITORPEN EREDUA</b> Finkoa: '280'
5-8	Numerikoa	<b>EKITALDIA</b> 1 erregistro motako posizio hauetan jarritakoa adieraziko da.
9-17	Alfanumerikoa	<b>AITORTZAILEAREN IFZ</b> 1 erregistro motako posizio hauetan jarritakoa adieraziko da.
18-26	Alfanumerikoa	<b>AITORTUAREN IFZ</b> Oro har, aitortuaren IFZ adierazi behar da uztailearen 8ko 71/2008 Foru Dekretuak, IFZren inguruko betebeharrak arautu dituenak, ezarritakoarekin bat etorriz (ALHAO, 88. zk., 2008ko abuztuaren 4koa). 14 urtetik beherakoak zergen arloko harremanetan edo zergetan eragina duten harremanetan identifikatzeko, 14 urtetik beherako pertsonaren datuak (identifikazio fiskaleko zenbakia barne) eta legezko ordezkariarenak (aita, ama edo tutorea) agertu behar dira. Eremu hau eskuinean lerrotatuko da, kontrol karakterea azken posizioan jarriko da eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.
27-35	Alfanumerikoa	<b>LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ</b> Hartzailleak 14 urte baino gutxiago baditu, eremu honetan beraren legezko ordezkariaren (aita, ama edo tutorea) identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da, uztailearen 8ko 71/2008 Foru Dekretuak, IFZren betebeharrak arautu dituenak, ezarritako arauarekin bat etorriz (ALHAO, 88. zk., 2008ko abuztuaren 4koa). Eremu hau eskuinean lerrotatuko da, kontrol karakterea azken posizioan jarriko da eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. Gainerako kasuetan eremu horretan hutsuneak jarriko dira.
36-75	Alfanumerikoa	<b>AITORTUAREN ABIZENAK ETA IZENA</b> Era honetan idatziko dira: lehenengo abizena, zuriune bat, bigarren deitura, zuriune bat, eta izen osoa, hurrenkera horrextan ezinbestean.
76	Numerikoa	<b>EPE LUZERAKO AURREZKI PLAN MOTA</b> Ondoko gako hauetako bat jarriko da: 1. SIALP: Epe luzerako aurrezki aseguru indibiduala. 2. CIALP: Epe luzerako aurrezki kontu indibiduala.
77	Alfabetikoa.	<b>IDENTIFIKATZAILE MOTA</b> Gako hauetako bat jarri behar da: I: Epe luzerako aurrezki plana IBAN kode baten bidez identifikatzen bada. O: Beste identifikatzaile bat ematen bada, esate baterako, aseguru kontratu baten erreferentzia zenbakia.
78-101	Alfanumerikoa	<b>KONTRATATUTAKO PRODUKTUAREN IDENTIFIKATZAILEA</b> Titulartasuna aitortuak duen CIALP edo SIALPen identifikazio kodea jarriko da.

102-109	Numerikoa	<p><b>IREKITZE DATA</b></p> <p>Eremu honetan hiru atal daude:</p> <p>102-105 Numerikoa: urtea</p> <p>106-107 Numerikoa: hila</p> <p>108-109 Numerikoa: eguna</p> <p>Epe luzerako aurrezki planaren eskubide ekonomikoak mobilizatzeotan, haren jatorrizko irekitze data hartuko da.</p>
110	Alfabetikoa.	<p><b>ALTAREN GAKOA</b></p> <p>Ondoko gako hauetako bat jarriko da:</p> <p>A. Epe luzerako aurrezki plana, aitorpenari dagokion ekitaldian edo aurreko ekitaldi batean eratua.</p> <p>B. Epe luzerako aurrezki planeko baja, beste aseguru edo kreditu entitate batera mobilizatzeagatik.</p> <p>C. Epe luzerako aurrezki planeko alta, beste aseguru edo kreditu entitate batetik mobilizatzeagatik.</p> <p>D. Epe luzerako aurrezki planeko alta eta beste aseguru edo kreditu entitate baterako mobilizazioa irekitze ekitaldi berean.</p>
111-116	Numerikoa	<p><b>EKITALDIAN EGINDAKO EKARPENAK</b></p> <p>Ekitaldian zehar epe luzerako aurrezki planera egindako ekarpenen zenbatekoa.</p> <p>“ALTAREN GAKOA” eremuan (2 motako erregistroko 110 posizioa) “B” edo “D” jarri baldin bada, mobilizatu arte egindako ekarpenak adierazi behar dira.</p> <p>“ALTAREN GAKOA” eremuan (2 motako erregistroko 110 posizioa) “C” jarri baldin bada, mobilizazioaz geroztik egindako ekarpenak adierazi behar dira.</p> <p>Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Balioak ez du zeinurik izango (+/-), ez eta koma hamartarrik ere.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p> <p>111-114: Numerikoa. OSOA: Zati osoa. Ekitaldian zehar egindako ekarpenen zati osoa adierazi behar da.</p> <p>115-116 Numerikoa. HAMARTARRA: Zati hamartarra. Ekitaldian zehar egindako ekarpenen zati hamartarra adierazi behar da.</p>
117-126	Numerikoa	<p><b>EKITALDIAN ZEHAR LORTUTAKO ETEKIN POSITIBOAK</b></p> <p>Aitorpenari dagokion ekitaldian epe luzerako aurrezki planetik sortutako higigarrien kapitalaren etekin positiboaren zenbatekoa jarri behar da.</p> <p>“ALTAREN GAKOA” eremuan (2 motako erregistroko 110 posizioa) “B” edo “D” jarri baldin bada, mobilizatu arte sortutako etekinak jarri behar dira, mobilizazioaren ondorioz sor litezkeenak barne direlarik.</p> <p>“ALTAREN GAKOA” eremuan (2 motako erregistroko 110 posizioa) “C” jarri baldin bada, mobilizazioaz geroztik sortutako etekinak jarri behar dira.</p> <p>Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Balioak ez du zeinurik izango (+/-), ez eta koma hamartarrik ere.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p> <p>117-124 Numerikoa. OSOA: Zati osoa. Ekitaldian zehar lortutako etekin positiboaren zati osoa jarri behar da.</p>

		125-126	Numerikoa. HAMARTARRA: Zati hamartarra. Ekitaldian zehar lortutako etekin positiboen zati hamartarra jarri behar da.
127-136	Numerikoa		<p><b>EKITALDIAN ZEHAR LORTUTAKO ETEKIN NEGATIBOAK</b></p> <p>Aitorpenari dagokion ekitaldian epe luzerako aurrezki planetik sortutako higigarrien kapitalaren etekin negatiboen zenbatekoa jarri behar da.</p> <p>“ALTAREN GAKOA” eremuan (2 motako erregistroko 110 posizioa) “B” edo “D” jarri baldin bada, mobilizatu arte sortutako etekin negatiboak jarri behar dira, mobilizazioaren ondorioz sor litezkeenak barne direlarik.</p> <p>“ALTAREN GAKOA” eremuan (2 motako erregistroko 110 posizioa) “C” jarri baldin bada, mobilizazioaz geroztik sortutako etekin negatiboak jarri behar dira.</p> <p>Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Balioak ez du zeinurik izango (+/-), ez eta koma hamartarrik ere.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p>
		127-134	Numerikoa. OSOA: Zati osoa. Ekitaldian zehar lortutako etekin negatiboen zati osoa jarri behar da.
		135-136	Numerikoa. HAMARTARRA: Zati hamartarra. Ekitaldian zehar lortutako etekin negatiboen zati hamartarra jarri behar da.
137	Numerikoa		<p><b>EPE LUZERAKO AURREZKI PLANAREN IRAUNGITZEA</b></p> <p>Epe luzerako aurrezki plana ekitaldian iraungitezotan, ondoko gako hauetakoa bat jarri beharko da:</p> <p>1: Epe luzerako aurrezki plana iraungitzea bertan sartutako zenbatekoen hura ireki zenetik 5 urte igaro baino lehenago baliatzeagatik, edo PFEZari buruzko Foru Arauaren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriko 1. apartatuko c) letran ezarritako ekarpen muga ez betetzeagatik.</p> <p>2: Epe luzerako aurrezki plana iraungitzea aurreko paragrafoan zehaztutako bestelako inguruabarretan.</p> <p>Epe luzerako aurrezki plana aitorpenari dagokion ekitaldian iraungi ez baldin bada, eremu hau hutsik utzi beharko da.</p> <p>Ez da iritziko epe luzerako aurrezki planaren iraungitzea gertatu denik hari erantsitako eskubide ekonomikoak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Arautegian (abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren bidez onartuta) ezarritakoaren arabera mobilizatzen badira. Hortaz, “ALTAREN GAKOA” eremuan, zeinak 2 motako erregistroko 110 posizioa baitu, “B” edo “D” jarri baldin bada, eremu hau hutsik egongo da.</p>
138-145	Numerikoa		<p><b>IRAUNGITZE DATA</b></p> <p>“EPE LUZERAKO AURREZKI PLANAREN IRAUNGITZEA” eremuak (2 motako erregistroko 137 posizioa) edukirik baldin badu, haren iraungitze data adierazi beharko da.</p> <p>138-141 Numerikoa: urtea</p> <p>142-143 Numerikoa: hila</p> <p>144-145 Numerikoa: eguna</p>
146-155	Numerikoa		<p><b>METATUTAKO ETEKIN POSITIBOAK</b></p> <p>“EPE LUZERAKO AURREZKI PLANAREN IRAUNGITZEA” eremuak (2 motako erregistroko 137 posizioa) edukirik baldin badu, irekitze dataz geroztik lortutako higigarrien kapitalaren etekin positiboen guztirako zenbatekoa adierazi beharko da.</p> <p>Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Balioak ez du zeinurik izango (+/-), ez eta koma hamartarrik ere.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p>



		146-153	Numerikoa. OSOA: Zati osoa. Irekitze dataz geroztik metatutako etekin positiboen zati osoa jarri behar da.
		154-155	Numerikoa. HAMARTARRA: Zati hamartarra. Irekitze dataz geroztik metatutako etekin positiboen zati hamartarra jarri behar da.
156-165	Numerikoa		<p><b>METATUTAKO ETEKIN NEGATIBOAK</b></p> <p>“EPE LUZERAKO AURREZKI PLANAREN IRAUNGITZEA” eremuak (2 motako erregistroko 137 posizioa) edukirik baldin bada, irekitze dataz geroztik lortutako higigarrien kapitalaren etekin negatiboen guztirako zenbatekoa adierazi beharko da.</p> <p>Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Balioak ez du zeinurik izango (+/-), ez eta koma hamartarrik ere.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p>
		156-163	Numerikoa. OSOA: Zati osoa. Irekitze dataz geroztik metatutako etekin negatiboen zati osoa jarri behar da.
		164-155	Numerikoa. HAMARTARRA: Zati hamartarra. Irekitze dataz geroztik metatutako etekin negatiboen zati hamartarra jarri behar da.
166-175	Numerikoa		<p><b>EGINDAKO ATXIKIPENAREN OINARRIA</b></p> <p>“EPE LUZERAKO AURREZKI PLANAREN IRAUNGITZEA” eremuan (2 motako erregistroko 137 posizioa) 1 gakoa aitortu baldin bada, PFEZaren Foru Arauak (33/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa) hogeita hamabigarren xedapen gehigarriko 6. apartatuan xedatutakoaren arabera egindako atxikipenaren oinarria adierazi beharko da.</p> <p>Zenbatekoak eurotan adieraziko dira. Balioak ez du zeinurik izango (+/-), ez eta koma hamartarrik ere.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p>
		166-173	Numerikoa. OSOA: Zati osoa. Egindako atxikipenaren oinarriaren zati osoa adierazi behar da.
		174-175	Numerikoa. HAMARTARRA: Zati hamartarra. Egindako atxikipenaren oinarriaren zati hamartarra adierazi behar da.
176-186	Alfanumerikoa		<p><b>ETEKIN NEGATIBO EGOZGARRIAK</b></p> <p>“EPE LUZERAKO AURREZKI PLANAREN IRAUNGITZEA” eremuan (2 motako erregistroko 137 posizioa) 2 gakoa aitortu baldin bada, iraungitzea gertatu den ekitaldiari egotzi behar zaizkion higigarrien kapitalaren etekin negatiboen zenbatekoa adierazi beharko da, PFEZaren Foru Arauak (33/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa) hogeita hamabigarren xedapen gehigarriko 7. apartatuan xedatutakoaren arabera.</p> <p>Bestela, eremua zeroz beteko da.</p> <p>176. ZEINUA: Eremu alfabetikoa: «N» jarriko da beti.</p> <p>177-186: ETEKIN NEGATIBOIA: Hamar posizioko eremu numerikoa.</p> <p>Zenbatekoak EUROTan adieraziko dira. Balioak ez du zeinurik izango (+/-), ez eta koma hamartarrik ere.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p>
		177-184	Numerikoa. OSOA: Zati osoa. Etekin negatibo egozgarrien zati osoa adierazi behar da.
		184-185	Numerikoa. HAMARTARRA: Zati hamartarra. Etekin negatibo egozgarrien zati hamartarra adierazi behar da.
187-500	-----		<b>ZURIUNEAK</b>

- \* Zenbateko guztiak positiboak izango dira.
- \* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete beharko dira.
- \* Edukirik ez duten eremu alfanumerikoak eta alfabetikoak zurienez bete beharko dira.
- \* Eremu numeriko guztiak, eskuinera lerrokatu behar dira eta ezkerraldean zeroz bete behar dira.
- \* Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldean lerrokatu eta eskuinaldean zurienez bete behar dira, letra larriz idatzita, karaktere berezirik gabe eta azentudun bokalik gabe, eremuaren deskripzioan kontrakorik azaldu ezean.

280 EREDUA. 1 MOTAKO ERREGISTROA. AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA		AITORTZAILEAREN SOZIALTE-IZENA																														EUSKARRI MOTA		TELEFONOA																														
ERREDUA	EKITALDIA	AITORTZAILEAREN IFZ																													EUSKARRI MOTA		TELEFONOA																															
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62	63	64	65

  

HARREMANETARAKO PERTSONA			AITORTZAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA		AITORTZAREN OSAGARRIA		AURREKO AITORTZAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA																																																									
ABIZENAK ETA IZENA																																																																
66	67	68	69	70	71	72	73	74	75	76	77	78	79	80	81	82	83	84	85	86	87	88	89	90	91	92	93	94	95	96	97	98	99	100	101	102	103	104	105	106	107	108	109	110	111	112	113	114	115	116	117	118	119	120	121	122	123	124	125	126	127	128	129	130

  

AURREKO AITORTZAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA	AITORTZAREN KOPURUA	AITORTZAREN OSOAKO ZENBATEKOA	AITORTZAREN OINARRIA	OSOA																																																												
				HAMARTARRA	HAMARTARRA																																																											
131	132	133	134	135	136	137	138	139	140	141	142	143	144	145	146	147	148	149	150	151	152	153	154	155	156	157	158	159	160	161	162	163	164	165	166	167	168	169	170	171	172	173	174	175	176	177	178	179	180	181	182	183	184	185	186	187	188	189	190	191	192	193	194	195

  

196
197
198
199
200
201
202
203
204
205
206
207
208
209
210
211
212
213
214
215
216
217
218
219
220
221
222
223
224
225
226
227
228
229
230
231
232
233
234
235
236
237
238
239
240
241
242
243
244
245
246
247
248
249
250
251
252
253
254
255
256
257
258
259
260



280 EREDUA. 2 MOTAKO ERREGISTROA: AITORTUEN ERREGISTROA

AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA		AITORTUAREN IFZ		LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ		AITORTUAREN ABIZENAK ETA IZENA																																																											
EREDUA	EKITALDIA	AITORTZAILEAREN IFZ		AITORTUAREN IFZ		LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ		AITORTUAREN ABIZENAK ETA IZENA																																																									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62	63	64	65	66

AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA		AITORTUAREN IFZ		LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ		AITORTUAREN ABIZENAK ETA IZENA																																																											
EREDUA	EKITALDIA	AITORTZAILEAREN IFZ		AITORTUAREN IFZ		LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ		AITORTUAREN ABIZENAK ETA IZENA																																																									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62	63	64	65	66

AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA		AITORTUAREN IFZ		LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ		AITORTUAREN ABIZENAK ETA IZENA																																																											
EREDUA	EKITALDIA	AITORTZAILEAREN IFZ		AITORTUAREN IFZ		LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ		AITORTUAREN ABIZENAK ETA IZENA																																																									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62	63	64	65	66

AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA		AITORTUAREN IFZ		LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ		AITORTUAREN ABIZENAK ETA IZENA																																																											
EREDUA	EKITALDIA	AITORTZAILEAREN IFZ		AITORTUAREN IFZ		LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ		AITORTUAREN ABIZENAK ETA IZENA																																																									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62	63	64	65	66

